

# ERDI AROKO EUSKARAREN CORPUSA OSATZEKO EKARPENA

Urtzi Reguero Ugarte

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea

## Laburpena

Lan honek Erdi Aroko euskararen ezagutzan sakontzeko ekarpena izan nahi du. Horretarako, garai hartako agiritan eta bestelakoetan agertzen diren hainbat lekukotasun bildu ditugu, bereziki leku eta pertsona izenak. Hauetarik batzuk lehenetik ezagunak ziren Lacarrak (1957), Arzamendik (1985), Libanok (1995-1999) edo beste ikerlariek egindako lanei esker; guk honakoan guztiak biltzen saiatu gara, argitaragabe batzuk ere ekarri ditugu eta alfabetikoki hurrenkeratu ditugu eta intereseko datuak (urtea, herria, herrialdea, iturria eta bibliografia) eman ditugu. Bestalde, Erdi Aroko hilarrietan lekukotzen diren hilartizetako euskarazko elementuak ere jaso eta aztertu ditugu.

## Abstract

This is an attempt to extend our knowledge about Medieval Basque. We will collect some Basque attestations that appeared in different medieval documents, basically place and personal names. Some of them were published by Lacarra (1957), Arzamendi (1985), Libano (1995-1999) and other specialists; now we will attempt to gather and arrange them in alphabetical order with potentially interesting information about their year, location, source and bibliography. Meanwhile, we will also collect and analyze Basque elements that appeared in the inscriptions of medieval tombstones.

## 1. Sarrera<sup>1</sup>

Erdi Aroko euskara euskal hizkuntzalari eta filologoontzat garrantzia handikoa da ezbairik gabe. Hala ere, gure disziplina hauetan ez da ikergaien artean lehena izan. Orpustanen (1999) lana dukegu euskararen protohistoriako garai honetaz arduratzen

---

<sup>1</sup> Lan hau Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU) 2010/2011 ikasturtean lau urtetarako emandako *Ikertzaileen prestakuntzarako laguntzari* esker burutu ahal izan da (kodea: PIF10/2010/PIF10017). Halaber, Myriam Uribe-Etxebarriak koordinatzen duen UFI11/14 erreferentziadun UPV/EHUko formazio eta ikerketa taldearen baitan egina da gure lana. Bestalde, eskerrak eman behar dizkiot Ricardo Gómezi lan honen aurreko bertsioak irakurri, iruzkindu eta egindako zuzenketangatik. Esan beharrik ez da dauden akats guztiak nire-nireak direla.

den lan sistematiko bakarrenetako; hala ere, liburu horri kritika interesgarria egin zion Salaberrik (1999), zeinetan Orpustanek egindako hainbat hutsune azpimarratzen baititu:

Sin embargo, creemos que la obra de Orpustan adolece de ciertos defectos capitales, especialmente en el campo de la etimología, campo en el que el investigador bajonavarro muestra una serie de consideraciones apriorísticas que hacen que el trabajo posterior no pueda ser tomado demasiado en serio (Salaberri 1999: 206).

Berrikiago, Salaberrik (2013) Erdi Aroko euskaraz eta honen egoeraz idatzi du. Ikergai honi eta, oro har, Erdi Aroko euskararen ezagutzari gure ekarpena egin asmoz, oraingo honetan<sup>2</sup> Erdi Aroko datuak (kronikak, dokumentuak eta bestelakoak) biltzen dituzten lan argitaratuetatik atera ditugun lekukotasunak biltzen ditugu.

Lan hau ez da behin-betikoa eta azkena izango; aldiz, dagoeneko eginda daudenen osagarria besterik ez da. Ikusiko denez, Erdi Aroko dokumentu batzuk ez ditugu zuzenean erabili eta aurreko ikertzaileen lanetatik atera ditugu datuak (ik. zerrenda osoa lanaren bibliografian). Erabili ditugun testu argitaragabe bakarrak Nafarroako Artxibategi Orokorreko kontuen sekzioetik Jon Andoni Fernández de Larreak<sup>3</sup> ateratako zenbait pasarte dira.

Halaber, dakargun zerrenda honetan ez ditugu lanerako (cf. Reguero 2012) erabilitako datu guztiak sartu. Gure ikerketarako, besteak beste, Goihenetxeren (1966), Arzamendiren (1985), Líbanoren (1995-1999) eta Orpustanen (1999) datu bildumak baliatu baditugu ere, ez ditugu bertan jasotzen diren lekukotasun guztiak gure zerrenda honetan sartu, lan hauek beren baitan bildumak (ere) badirelako, eta bertan datuak ondo ordenatuta eta bilaketa egiteko erraz daudelako.<sup>4</sup> Hala ere, zenbaitetan egile hauek erabili dituzten iturri batzuk guk ere eskura izan ditugunez, gure zerrendan besteenetan agertzen diren lekukotasunak ere ager litezke. Lan honetako 3. atalean aipatu ditugu guk erabilitako iturriak eta adierazi dugu zein diren Goihenetxek, Arzamendik, Líbanok eta Orpustanek ere darabiltzatenak.

Bestalde, Erdi Aroko dokumentu eta agiriez gain, ordukoak diren hilartitzak ere ekarri ditugu lan honetara, baina soilik euskarazkoak diren edo euskarazko bilakabideak jasan dituzketen izenak dituztenak. Tamalez, ez dira akitanierazkoen mailara iristen, ez kualitatiboki eta ez kuantitatiboki; bakar batzuk baino ez dira lekukotzen, eta hauek, oro har, gainerako dokumentuetan agertzen diren izenak dakartzate. Ziurrenik horregatik, orain arte hilartitz hauek ez dira euskal hizkuntzalari eta filologoan artean historialarientzat bezain ezagunak eta ikertuak izan, eta ez dira hizkuntza aldetik behar bezala aztertu ezta Erdi Aroko gainerako lekukotasunekin konparatu ere —Orpustanek (1999) esaterako ez dakartza bere bibliografian—. Hala eta gutiz ere, garrantzitsu iritzi diogu Erdi Aroko euskararen corpusa osatze aldera hilartitzetan agertzen diren euskarazko izenak ere bildu eta aztertzeari.

<sup>2</sup> Izatez, lan honek *Erdi Aroko euskara: dialektalizazioaren hastapenetarantz* (Reguero 2012) gure master-tesiaren eranskina du oinarri.

<sup>3</sup> Bihoazkio, beraz, eskerrak Jon Andoniri.

<sup>4</sup> Orpustanek (1999) VI. kapituluari Erdi Aroko lekukotasunen zerrenda alfabetiko luzexka dakar, lekukotze data eta guzti. Tamalez, ordea, ez da bakoitzaren iturria zehazten.

## 2. Irizpideak

Lekukotasunen zerrenda hurrenkera alfabetikoan osatu dugu<sup>5</sup> eta, ikus daitekeenez, lekukotasunarekin batera beste hainbat datu ematen ere saiatuko gara: testu-ingurua, agertzen den urte edo mendea, herria, herrialdea, dokumentua eta iturria jarri ditugu, datu horiek jakinez gero. Zenbait kasutan, ezin izan dugu informazio osoa eman, bereziki lekukotasunari dagokion herria; beste batzuetan zein dokumentutan agertzen den ere ezin izan dugu zehaztu, erabili dugun iturrian ere agertzen ez delako.

Bestalde, hainbat lekukotasun birritan ager litezke; esaterako, *Açeari Guruciricoa*. Gisa honetako lekukotasunek bi sarrera dituzte, bata *Açeari*-ri dagokion sarreran eta bestea *Guruciricoa*-ri dagokionean. Horretaz gain, lekukotasun berbera erabilitako iturri batean baino gehiagotan ager liteke; esaterako, aurreko adibidea Mitxelenak bi lekutan dakar: *TAV* § 2.1.7 eta 1969b. Halakoetan forma bakarra ematen ahalegindu gara, baina iturrien atalean biak aipatzen ditugu. Gauza bera gertatzen da askotan Lacarrak (1957) biltzen dituen lekukotasunekin, Mitxelenak ere (1969b) bertako adibide bakarren batzuk aipatzen baititu. Halakoetan, grafia aldaketarik edo bestelakorik ez badago bederen, sarrera bakarra ematen dugu eta bi iturriak aipatu. Halaber, lekukotasun guztien grafia iturri bibliografikoetan jaso den moduan dakargu.

Amaitzeko, merezi luke aipatzea corpusa osatzeko orduan lekukotasunen artean euskarazkotzat zein hartu erabakitzeko erabili ditugun irizpideak. Funtsean Mitxelenak (1953: 27-28) jarraitu zituen irizpide berberak jarraitu ditugu, hau da, euskarazkotzat hartu ditugu: (1) ahozko euskaraz ohikoak diren hitzak, *aurre*, *buru*, (*h*)*egi* esaterako, edo hauetakoren bat duten hitz elkartuak; (2) erdarako jatorria izan arren, euskararen bilakabideak izan dituztenak: lat. *asinarius* > *azeari*; (3) oinarria erdarazkoa edo ezezaguna izan arren, euskarazko atzizki edo kasu marka daramaten hitzak, *Amburçe* kasu.

## 3. Iturriak

Hilartitzei dagokienez, Azkarate eta Caminok (1996) egindako lanetik hartu ditugu guztiak, bertan agertutako irakurketa proposamenak ere gure eginik. Bestalde, 5. ataleko corpusean dakartzagun lekukotasun guztiak honako iturri bibliografikoetatik atera ditugu:

AHN: Madrilgo Artxibo Historiko Nazionala. Iturria: Ciervide (1976).

Artaxoa: Artaxoako dokumentu historikoak. Iturriak: Lacarra (1957), Mitxelena (1969a, 1969b). Líbanok (1995-1999) eta Arzamendik (1985) erabilia.

Cardeña: *Becerro Gótico de Cardeña*. Iturria: *TAV* § 2.2.3. Líbanok (1995-1999) erabilia.

Col.Dipl.Doc.Gasc.: *Colección diplomática de documentos gascones*. Iturria: Cierbide & Santano (1985). Orpustanek (1999) erabilia.

Col.Doc.In.: *Colección de documentos inéditos para la historia de Navarra*. Iturria: Mitxelena (1969a). Arzamendik (1985) eta Líbanok (1995-1999) erabilia.

CSM: Donemiliaga Kukulako kartularioa. Iturriak: *TAV* § 2.1.4, § 2.1.5 eta Cortázar *et alii* (1979). Arzamendik (1985) eta Líbanok (1995-1999) erabilia.

<sup>5</sup> Master-tesian (Reguero 2012) hurrenkera kronologikoa ere eman genuen.

- Enquête: “L’enquête de 1249”. Iturria: Orpustan (1997). Orpustanek (1999) erabilia.
- Estibaliz: Estibalizko santutegiaren emaitza Naiarako elizari. Iturria: Cortázar *et alii* (1979). Arzamendik (1985) erabilia.
- Etxebarria: Elorrioko Etxebarria monasterioko 1013ko agiria. Iturriak: TAV § 2.1.6 eta Hidalgo de Cisneros (1988).
- Gomendioa: Iruñeko gotzaiak Baionakoari egindako gomendioa 1186-1193 urte bitartean. Iturria: Mora Afán (2005).
- Irantzu: Irantzuko Liburu Gorria. Iturria: Jimeno Jurio (1973). Arzamendik (1985) erabilia.
- Iratxe: *Colección diplomática de Iratxe*. Iturriak: Lacarra (1957), Mitxelena (1969a). Arzamendik (1985) eta Líbanok (1995-1999) erabilia.
- IUA: Iruñeko Udal Artxibategia. Iturria: Mitxelena (1969a).
- Leire: Leireko monasterioko dokumentuak. Iturriak: Lacarra (1957), TAV §§ 2.2.7.1 eta 2.2.9, Cierbide (1976, 1996). Orpustanek (1999) erabilia.
- NAO: Nafarroako Artxibategi Orokorra. Iturriak: Irigarai (1955), Jimeno Jurío & Jimeno Aranguren (1998). Goihenetxek (1966) eta Arzamendik (1985) erabilia.
- NAO.KtSk: Nafarroako Artxibategi Orokorreko Kontu Sekzioa. Jon Andoni Fernández de Larreak utzitako testu zatietatik atereak.
- NFO: Nafarroako Foru Orokorra. Iturriak: Ilarregi & Lapuerta (1869) eta TAV § 2.2.13. Arzamendik (1985) eta Orpustanek (1999) erabilia.
- Olazabal: Olazabal monasterioko dokumentuak. Iturria: Cortázar *et alii* (1979). Arzamendik (1985) erabilia.
- OPA: Oliteko San Pedroko Parrokia-Artxiboa. Iturria: Ciervide (1976).
- Orreaga: Orreagako saroi zerrenda. Iturria: TAV § 2.1.8. Arzamendik (1985) eta Líbanok (1995-1999) erabilia.
- San Migel: San Migel de Excelsiseko dokumentuak. Iturria: TAV § 2.2.11. Arzamendik (1985) erabilia.
- SJuan: Donibane Jerusalemgo Ordena. Iturriak: Lacarra (1957), Mitxelena (TAV, 1969b). Arzamendik (1985) erabilia.
- SJu.Pe.Kart.: San Juan de la Peñako kartularioa. Iturria: Mitxelena (1969a). Arzamendik (1985) eta Líbanok (1995-1999) erabilia.
- Sorde: Sordeko Donibaneko kartularioa. Iturria: Raymond (1873). Goihenetxek (1966) eta Orpustanek (1999) erabilia.
- TAV: *Textos Arcaicos Vascos*, Mitxelena (1964). Arzamendik (1985) eta Orpustanek (1999) erabilia.
- Zizurkil-Alegia: Zizurkilgo udal artxibategian dagoen 1391ko agiria, Zizurkili eta Alegiari dagokiena. Iturria: Mora Afán (2005).
- ZUA: Zizurkilgo Udal Artxibategiko 1389ko agiria. Iturria: Mora Afán (2005).

Bistan da ez ditugula, beraz, Erdi Aroko lekukotasun guztiak bildu, eta datu asko geratu direla hemen jaso gabe. Hala ere, espero dugu lan honetan aurkezten dugun lagina baliagarri izango dela orduko euskara nolakoa izan zitekeen ikusi ahal izateko.

#### 4. Euskara Erdi Aroko hiltartizetan

Erdi Aroko euskara ezagutzeko iturri nagusia, ezbairik gabe, orduko dokumentu eta agiriak dira, bereziki bertan agertzen diren euskarazko toponimo eta antroponi-

moak. Dena dela, badira Erdi Aroko hiltartizetan agertzen diren euskarazko pertsona izen bakar batzuk ere, guztiak Azkarate & García Camino (1996) jasoak. Interesgarri deritzogun gai honekin jarraitu nahirik, ondoko lerrootan, aipatu historialariok bildu zituzten eta euskarazko izenak dituzketen idatziak ekarri ditugu, guk geuk egindako ohar laburrez lagundurik.<sup>6</sup>

[1] [ \_ ] *prebiste / ri Hobeconi*

Trebiñon lekukotzen da x. mendeko hiltartz hau (Azkarate & García Camino 1996: 124). *Hobeconi* horretako *-co-* akitanieraz (cf. Gorrotxategi 1984: 261-262) eta Erdi Aroko euskaraz maiz lekukotzen den txikigarria dateke. Bestalde, garai hartako dokumentuetan agertzen den *Ouecuri* (Irantzu, 1332) eta *monasterio de Ouecouiri* (Leire, d.g.) lekukotasunen erro berberaren aurrean geundeke. Halaber, Donemiliaga Kukulako Kartularioan 937an *Oveco prebister* eta 955ean *Oveco Didaz* lekukotzen dira; beraz, ez da zalantza handiegirik *Hobe + co* egituraren aurrean gaudela.

[2] *Ego Lehoari / et Maria*

Abadiñon lekukotua eta ix-x. mendeen bitartean idatzi bide zen (Azkarate & García Camino 1996: 140-142). Bertan agertzen den *Lehoari* latinezko *legionarius-*etik datorke. Etimologia zuzena bada,  $g > \emptyset$  genuke, baita euskarazko *-n-*  $> \emptyset$  bilakabidea ere. Gainera  $h_3 > h_2$  bilakabidearen adibide banaketakoa litzateke (ik. Lakarra 2009a eta 2009b). Badira, bestalde, Erdi Aroan lekukotzen diren antroponimo beraren adibide gehiago ere: San Migeleko dokumentuetan birritan agertzen da *Orti Lehoarriç* 1167 urtean.

[3] *Nomen il / lium ego Be / laza ora / /te prome / peccatore*

Hau ere Abadiñon lekukotua eta ix-x. mendeen artean idatzia bide da (Azkarate & García Camino 1996: 149-150). Hiltartz honetan euskarazko *belatzetik* datorkeen *Belaza* antroponimo ezaguna irakur liteke. Erdi Aroko lekukotasunen artean, *Munio Belaza* ere lekukotzen da 950 urtean Iratxeke bilduman (Mitxelena 1969a: 477).

[4] *in dei nomi(ne) / ego / Acena / ri*

Amorebieta-Etxanon lekukotzen da eta x-xi. mendeen inguruan idatzia dirudi (Azkarate & García Camino 1996: 151-152). Hiltartz honetan Erdi Aroan maiz lekukotzen den izena ageri da: *Acenari*; ik. esaterako *Garbisso Acenariz* (Leire, 1048) eta *Azeari Zalduetaco* (SJuan, 1195). Aurrean dugun lekukotasun honetan *-n-*dun aldaera arkaikoa ageri zaigu.

[5] *In d(ei) n(om)i(ne) ego Mominu / s i(n) p(a)c(e) X(risti) ic / dor /mil*

Artean lekukotua eta ix-x. mende bitartean idatzia (Azkarate & García Camino 1996: 161-164), hiltartz honetan *Mominus* izena agertzen da eta Erdi Aroan maiz lekukotzen den *Momo* izenaren aldaera izan liteke (cf. TAV § 2.1.1 eta Azkarate & García Camino 1996: 191-192).

[6] [ \_ ] M [ \_ ] D / [ \_ ] M [ \_ ] / *Enego + / I eme*

<sup>6</sup> Gorrotxategik (2002) Bizkai inguruko antzinateko onomastikaz diharduela, hiltartz hauen gainean zenbait ohar linguistiko egiten ditu, laburki bada ere.

Atxondon agertu eta x-xi. mende bitartean idatzi zen hiltartz honetan *Enego* agertzen da (Azkarate & García Camino 1996: 164-166). Ezbairik gabe, Erdi Aroan maiz lekukotzen den euskarazko *Eneko* izenaren aldaera grafikoa da; ik., besteak beste, *Eneco Arçeiz* (Iratxe, 1168), *Eneco Erroco* (Iratxe, 1219).

[7] *Belaco filius / Cent(u)le Centule(z)*

Honako hiltartzia Basaurin agertu zen eta ix-x mende bitartean idatzia bide da (Azkarate & García Camino 1996: 166-168). Inskripzio honetan *-co* txikigarria darman eta euskarazko jatorria lukeen *Belaco* antroponimoa agertzen zaigu. Atzizki hau Erdi Aroan antroponimo gehiagotan ageri da, besteak beste [6] hiltartizean agertzen den *Eneko* pertsona izenean.

[8] *in dei n(omi)ne / eg(o) Munin(co)*

Berrizen agertutako hiltartz hau ix-x. mendean inguruan idatzi zen (Azkarate & García Camino 1996: 171-173) eta, bertan *Munin* agertzen bada ere, Azkarate eta García Caminoren arabera (1996: 172) *Muninco* da seguru asko; beraz, Erdi Aroan ohikoa bide den *-co* txikigarria genuke (ik. [1], [6] eta [7] hiltartzak).

[9] *And(e) / ra / n (i)*

viii-ix. mende inguruan idatzi eta Argiñetan agertutako inskripzio honetan *Ande-rani* lekukotzen da (Azkarate & García Camino 1996: 196-197). Erdi Aroan ohiko emakume izena bide da, maiz lekukotzen baita; ik., besteak beste, *Anderazo* (Iratxe, 1035), *Andere Auria Zaarra* (Leire, 1055) eta hemen bertan [11] hiltartzia ere. Akitanieraz ere gisa honetako antroponimoa maiz lekukotzen da: *ANDERE*, *ANDERENI*, *ANDEREXO*, *ANDEREXSO* (Gorrotxategi 1984: 127-134).

[10] *In dei n(omi)ne ego / Aostarri de / funto + ego fic(i) ista petra Hoitarri / ezo*

Garain lekukotu eta x. mendean idatzitako hiltartz honetan euskarazko bi antroponimo ikus litezke (Azkarate & García Camino 1996: 202-204). Lehenengoa *Aostar* genuke eta parekidea izan lezake Etxebarriako monasterioko 1013ko<sup>7</sup> agirian lekukotzen den *Ahoçtarreç*; ikus halaber [13] hiltartzia. Bigarren pertsona izena *Hoitarriezo* genuke; aurrekoak bezala *-tar* atzizkia eraman lezake eta, gainera, amaierako *-zo* hori txikigarria izan liteke (erka bedi, esaterako, Iratxen 1035ean lekukotzen den *Anderazo* pertsona izenarekin).

[11] *In (dei nomi)ne / ego Antera / zoni pos /sui me (moria) PUS*

Garain lekukotzen den x. mendeko hiltartz honetan, Erdi Aroan ohikoa den *Anterazo* izena agertzen da (Azkarate & García Camino 1996: 213-214); [9] hiltartizean agertzen den pertsona izen berbera genuke, baina oraingoan *-zo* txikigarriarekin, [10]ekoaren antzera. Sudurkari ostean herskari ahoskabea duen aldaera bakarra genuke, ez baitugu halako besterik aurkitu Erdi Aroko lekukotasunen artean. Gorrotxategik (2002: 117-118) erakusten duenez, hiltartz hauek arkaismoetarako joera dute, ez bakarrik euskarazkoak diratekeen antroponimoetan, baita latinezko

<sup>7</sup> Mitxelena (TAV §§ 2.1.6) 1053 urtekoa dela dio, baina Hidalgo de Cisnerosek (1988) 1013 urtekoa dela adierazten du, guk azken honi jarraitu diogu.

hitzetan ere: *Centule* eta *Quentule* agertzen dira *Gendule*-ren partez (cf. *Gendulain*). Euskarazko izenean arkaismorako joeraren adibide gisa *Anterazo* ematen du Gorrotxategik (2002: 118); hain zuzen ere, jatorrizko *Anderazo* ahoskatzen denaren hiperezuzenketatzat hartzen du.

[12] *In d(e)i n(o)m(i)ne / Issamenus / post suum / obitum in / corpora / oc dormit*

x-xi. mende arteko Igorreko hilartitz honetan euskarazkoa dirudien *Issamenus* izena lekukotzen da (Azkarate & García Camino 1996: 214-215); ez dugu, halere, beste inon honen parekiderik aurkitu.

[13] *(In dei no) / (m) ine ego / ashostar*

Izurtzan lekukotzen den x-xi. mende bitarteko hilartitz honetan (Azkarate & García Camino 1996: 218-219) [10]eko izen bera lekukotzen bide da: *ashostar*.

[14] *In dei no / mine ego / Legoar*

Izurtzan lekukotua eta x-xi. mende inguruan idatzia (Azkarate & García Camino 1996: 220-221). Bertan agertzen den *Legoar* antroponimoa [2]koaren jatorri berekoa izan liteke, alegia, lat. *legionarius*-etik letorke; baina azken honetan ez da bokalarteko -g-rik galdu eta, beraz, kasu honetan ez dugu hasperenaren ezkerrenanzko mugimendurik; bai, aldiz, bokalarteko sudurkariaren galera.

[15] *I(n) no(mi)ne d(omi)ne / ego Mu / nuto*

Mallabian agertu den x-xi. mende bitarteko hilartitz honetan *Munuto* izena ageri da (Azkarate & García Camino 1996: 229-230). Izenaren amaierako -to horrek euskarazko txikigarria dirudi; cf. *Nunnuto* (Elorrio, 1013), *Allavato* (Iratxe, 1080), *Nunmito* (Zizurkil, 1389).

[16] *in dei no / mine ego / Zeiani cu / m suo ger /mani. Iaun / ti. In cor / pore suo / + s + N + ob / it( \_)*

Hilartitz hau Zeanurin lekukotu eta xi. mende inguruan idatzi zen (Azkarate & García Camino 1996: 238-239). Bertan agertzen den *Zeiani* antroponimoa *Zeanuri* herri izenaren lehen elementuaren parekidea izan liteke. Bestalde, *Iaun*- lekukotzen da, Erdi Aroan maiz agertua.

## 5. Bibliografia

- Arriolabengoa, Julen, 1996, «Erdi Aroko kanta ezezagunak Iburguen-Cachopin kronikan (1570-1620). Butroeko Andrearen Eresiaren bertsio ezezaguna; Salinasko Kontearen Kantua; Errodrigo Zaratekoaren Kantu Epikoa», *ASJU* XXX-1, 71-98.
- , 2008, *Euskara Iburguen-Cachopin kronikan. Testu zaharren ediziorako kontribuzioa*, Euskaltzaindia-BBK Fundazioa, Bilbo.
- Arzamendi, Jesús, 1985, *Términos vascos en documentos medievales de los siglos XI-XVI*, UPV/EHU, Bilbo.
- Azkarate, Agustín, 1985, «Nueva inscripción altomedieval vizcaína (San Martín de Gaztelua, Abadiano) y revisión del epígrafe de IAUNINCO (Andra Mari de Muntzaraz, Abiadiano, Vizcaya)», *ASJU* XIX-1, 53-67.

- & Iñaki García Camino, 1996, *Estelas e inscripciones medievales del País Vasco (siglos VI-XI): I. País Vasco occidental. Euskal Herriko erdi aroko hilarri eta inskripzioak (VI-XI. mendek): I. Euskal Herriko mendebaldea*, Eusko Jaurlaritzua-Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.
- Ciervide, Ricardo, 1976, «Toponimia del Becerro antiguo de Leyre (siglos XII-XIII)», *FLV* 23, 237-284.
- , 1996, «Leyre: Onomástica del Becerro Antiguo. Consideraciones», *FLV* 71, 119-134.
- & Julián Santano, 1985, *Colección diplomática de documentos gascones de la Baja Navarra (siglos XIV-XV)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- García de Cortázar, José Ángel; Arizaga, Beatriz; Martínez Ochoa, Rosa M.<sup>a</sup> & María Luz Ríos, 1979, *Introducción a la historia medieval de Álava, Guipuzcoa y Vizcaya en sus textos*, Txertoa, Donostia.
- Goihenetxe, Eugène, 1966, *Onomastique du nord du Pays Basque (XI<sup>e</sup>-XV<sup>e</sup> siècles)*, Bordele. Berrarg. *Iker* 27, Euskaltzaindia, Bilbo, 2011.
- Gorrotxategi, Joakin, 1984, *Estudio sobre la onomástica indígena de Aquitania*, UPV/EHUko argitalpen zerbitzua, Bilbo.
- , 2002, «El área de Bilbao en la Antigüedad», in A. Arejita *et al.* (arg.), *Bilbao. El espacio lingüístico: Simposio 700 Aniversario = Bilboren 700. urteurrena. Hizkuntza gunea: Simposioa*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 103-120.
- Hidalgo de Cisneros, Concepción, 1988, *Colección Documental del Archivo Municipal de Elorrio (1013-1519)* (Fuentes documentales medievales del País Vasco, 16), Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- Ilarregi, Pablo & Segundo Lapuerta, 1869, *Fuero General de Navarra*, Imprenta Provincial, Iruña.
- Irigarai, Angel, 1955, «Antropónimos medioevales de Navarra», *Príncipe de Viana* 16, 493-506.
- Jimeno Jurío, José María, 1973, «El libro Rubro de Iranzu», *Príncipe de Viana* 120-121, 221-270.
- & Roldán Jimeno Aranguren, 1998, *Archivo General de Navarra (1197-1234)* (Fuentes documentales medievales del País Vasco, 89), Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- Lacarra, José María, 1957, *Vasconia medieval. Historia y filología*, (ASJUren gehigarriak, II), Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.
- Lakarra, Joseba A., 2009a, «Adabakiak /h/ -aren balio etimologikoaz», *ASJU* 43:1/2, 565-596. [= R. Etxepare, R. Gómez & J. A. Lakarra (arg.), *Beñat Oihartzabali Gorazarre - Festschrift for Bernard Oyharçabal*. Gipuzkoako Foru Aldundia-UPV/EHU, Donostia-San Sebastián].
- , 2009b, «\*h3 > h1, \*h2 > h1 eta horiei datxekien zenbait fenomenoaz», *Lapurdum* 13, 211-231.
- Líbano, Ángeles, 1995-1999, *Toponimia medieval en el País Vasco*. 4 liburuki (*Onomasticon vasconiae* 14, 16, 19, 20), Euskaltzaindia, Bilbo.
- Mitxelena, Koldo, 1953, *Apellidos vascos*. Orain in Luis Michelena, 2011, *Obras Completas IX. Onomástica* (al cuidado de J.A. Lakarra e Iñigo Ruiz Arzalluz). *ASJU*ren gehigarriak, LXII. 'Julio Urkixo' Euskal Filologia Mintegia, Gipuzkoako Foru Aldundia, Euskal Herriko Unibertsitatea, Donostia eta Gasteiz, 1-235.
- , 1964 *Textos Arcaicos Vascos*. Berrarg. 1990 (*ASJU*ren gehigarriak, XI), Gipuzkoako Foru Aldundia-Euskal Herriko Unibertsitatea, Donostia.



- , 1969a, «Notas lingüísticas a *Colección diplomática de Irache*». Orain in Luis Michelena, 2011, *Obras Completas IX. Onomástica* (al cuidado de J.A. Lakarra e Iñigo Ruiz Arzalluz). *ASJU*ren gehigarriak, LXII. 'Julio Urkixo' Euskal Filologia Mintegia, Gipuzkoako Foru Aldundia, Euskal Herriko Unibertsitatea, Donostia eta Gasteiz, 463-501.
- , 1969b, «Apéndice. Notas sobre los nombres de persona en la Navarra medieval», Orain in Luis Michelena, 2011, *Obras Completas IX. Onomástica* (al cuidado de J.A. Lakarra e Iñigo Ruiz Arzalluz). *ASJU*ren gehigarriak, LXII. 'Julio Urkixo' Euskal Filologia Mintegia, Gipuzkoako Foru Aldundia, Euskal Herriko Unibertsitatea, Donostia eta Gasteiz, 502-529.
- Mora Afán, Juan Carlos, 2005, *Zizurkilgo historia. Bailaratik hiribildura (1186-1615)*, Lizardi Kultur Elkartea, Tolosa.
- Orpustan, Jean Baptiste, 1997, «Histoire et onomastique médiévales. L'enquête de 1249 sur la guerre de Thibaud I de Navarre en Labourd», *Lapurdum* 2, 161-235.
- , 1999, *La langue basque au moyen age (IXe-XVe siècles)*, Izpegi, Baigorri.
- Raymond, Paul 1873, *Cartulaire de l'abbaye de Saint Jean de Sorde publié pour la premier fois sur le manuscrit original*, Librairie Archeologique de Dumoulin, Paris.
- Reguero, Urtzi, 2012, *Erdi Aroko Euskara: dialektalizazioaren hastapenetaratz*, UPV/EHUko master amaierako lan argitaragabea.
- Salaberri Zaratiegi, Patxi, 1999, «Orpustan, Jean Baptiste. *La Langue Basque au Moyen Âge (IX<sup>e</sup>-XV<sup>e</sup> siècles)*», *RIEV* 44:1, 205-209.
- , 2013 (inprimategian), «Erdi Aroa», in J. Gorrochategui Churruca, I. Igartua Ugarte & J. A. Lakarra Andrinua (arg.), *Euskararen historia*, Eusko Jaurlaritz, Vitoria-Gasteiz.

## 6. Corpusa

Lekukotasuna	Urtea	Osorik	Herria	Herrialdea	Iturria	Bibliografia
<i>Aari</i>	xiii	esta colonia es clamada gauqua aari		Nafarroa	NFO	TAV § 2.2.13
<i>Aari</i>	xiii	esta colonia es clamada gauca aari		Nafarroa	NFO	TAV § 2.2.13
<i>Abadie</i>	xiv-xv	Arnaut Guillem, seynor d'Abadie		Iparraldea	Col.Dipl. Doc. Gasc.	Ciervide & Santano 1989
<i>Abaurrea</i>	1409	Jimeno Miguel de Abaurrea	Iruñea	Nafarroa	NAO.KtSk2	Fdz. de Larrea
<i>Abaygar</i>	1364	pecha de Abaygar	Etzarri-Aranatz	Nafarroa	NAO.KtSk	Fdz. de Larrea
<i>Abeiza</i>	937	et Santi Iacobi in Abeiza		Araba	CSM	Cortázar <i>et alii</i> 1979
<i>Aberaxa</i>	1366	Miguel aberaxa	Bera	Nafarroa	NAO	Irigarai 1955
<i>Abodi</i>	1085	in portu Abodi		Nafarroa	Leire	Ciervide 1976
<i>Açaguerrico</i>	xiii	Quoanto es la pecha que es clamada açaguerrico.		Nafarroa	NFO	TAV § 2.2.13
<i>Açaguerrico</i>	xiii	Ay una pecha que esl clamada açaguerrico en basquenz		Nafarroa	NFO	TAV § 2.2.13
<i>Açaldegui</i>	1215	Açaldegui		Nafarroa	SJuan	Mitxelena 1969b
<i>Açaña</i>	1249	Sancho d'Açaña		Iparraldea	Enquête	Orpustan 1997
<i>Açaña</i>	1364	Miguel Lopiz d'Açaña	Etzarri-Aranatz	Nafarroa	NAO.KtSk	Fdz. de Larrea
<i>Açaña</i>	d.g.	En Açaña	Azanza	Nafarroa	Irantzu	Jimeno Jurio 1973
<i>Açaña</i>	xiii	de don Miguel d'Açaña	Ziritza	Nafarroa	SJuan	Lacarra 1957
<i>Açariz</i>	1255	Toda Açariz	Eraul	Nafarroa	Irantzu	Jimeno Jurio 1973
<i>Aceari</i>	1167	Aceari Umea	Zamartze	Nafarroa	San Migel	TAV § 2.2.11
<i>Aceari</i>	1167	Aceari Umea	Zamartze	Nafarroa	San Migel	TAV § 2.2.11
<i>Aceari</i>	xiii	Aceari Zuria de Guendulain	mendialdea	Nafarroa	SJuan	TAV § 2.1.7
<i>Açeari</i>	xiii	Açeari Guruciricoa	Ariztarai	Nafarroa	SJuan	TAV § 2.1.7 Mitxelena 1969b
<i>Aceariz</i>	1125	Orti Aceariz de Echaverri	Iratxe	Nafarroa	Iratxe	Mitxelena 1969a
<i>Achoco</i>	1364	Achoco Guardu d'Aynzua	Iruñea	Nafarroa	NAO.KtSk2	Fdz. de Larrea
<i>Aciaga</i>	1389	et otro moion o muga que esta en la costalada que es en ca Aciaga	Zizurkil	Gipuzkoa	ZUA	Mora Afán 2005
<i>Acurae Goyena</i>	1339	Acurae Goyena	Lukin	Nafarroa	Iratxe	Lacarra 1957
<i>Acuraeua</i>	1339	Acuraeua	Lukin	Nafarroa	Iratxe	Lacarra 1957
<i>Acx</i>	1364	Garçia Periz d'Acx	Etzarri-Aranatz	Nafarroa	NAO.KtSk	Fdz. de Larrea
<i>Acx</i>	1364	Johan Diez d'Acx	Etzarri-Aranatz	Nafarroa	NAO.KtSk	Fdz. de Larrea
<i>Acxa</i>	1353	Yenego Acxa		Nafarroa	NAO.KtSk	Fdz. de Larrea
<i>Adanza</i>	1099	in termino de Guentulain Adanza		Nafarroa	Leire	Ciervide 1976
<i>Adarburu</i>	1366	Adarburu	Lizarra	Nafarroa	NAO	Irigarai 1955
<i>Adarrasabia</i>	1096	Adarrasabia Fortuniones	Leire	Nafarroa	Leire	Ciervide 1996
<i>Adarreta</i>	1212	Adarreta	Olxoa	Nafarroa	Iratxe	Mitxelena 1969a
<i>Adarreta</i>	1219	Lop de Adarreta	Iratxe	Nafarroa	Iratxe	Mitxelena 1969a
<i>Adarreta</i>	d.g.	Don Sancho Galuarra de Adarreta	Urbiola	Nafarroa	Irantzu	Jimeno Jurio 1973
<i>Adialçarra</i>	d.g.	En Araynaz, en Adialçarra	Burunda	Nafarroa	Irantzu	Jimeno Jurio 1973
<i>Adialçarra</i>	d.g.	los cormanos de Adialçarra	Burunda	Nafarroa	Irantzu	Jimeno Jurio 1973
<i>Adialçarraga</i>	d.g.	Otra en el termino de Adialçarraga	Etzarri	Nafarroa	Irantzu	Jimeno Jurio 1973
<i>Adioiz</i>	1366	Lopo de Adioiz	Eusa	Nafarroa	NAO	Irigarai 1955
<i>Adioiz</i>	1366	Miguel de adioiz	Eusa	Nafarroa	NAO	Irigarai 1955
<i>Adurzaha</i>	1025	Mendiolha, Hollarruizu et Adurzaha	Donemiliaga	Araba	CSM 91	TAV § 2.1.5
<i>Aeça</i>	1366	Sancho aeça	Iruñea	Nafarroa	NAO	Irigarai 1955
<i>Aesterayn</i>	d.g.	III bualizas en Aesterayn		Nafarroa	Irantzu	Jimeno Jurio 1973
<i>Aezcoa</i>	1079	Aezcoa		Nafarroa	Leire	Ciervide 1976
<i>Aezcoa</i>	1085	Aezcoa		Nafarroa	Leire	Ciervide 1976
<i>Aezcoa</i>	1352	tierra d'Aezcoa		Nafarroa	NAO.KtSk	Fdz. de Larrea

Lekukotasuna	Urtea	Osorik	Herria	Herrialdea	Iturria	Bibliografia
<i>Aezquo</i>	1249	alcalde d'Aezquo		Iparraldea	Enquête	Orpustan 1997
<i>Aezquo</i>	xiv-xv	almirant de la terre d'Aezquo		Iparraldea	Col.Dipl. Doc. Gasc.	Ciervide & Santano 1989
<i>Agegui</i>	1098	Agegui		Nafarroa	Leire	Ciervide 1976
<i>Agorreta</i>	1328	Agorreta	Iruñea	Nafarroa	NAO.KtSk	Fdz. de Larrea
<i>Aguarrette</i>	1249	Arnalt d'Aguarrette		Iparraldea	Enquête	Orpustan 1997
<i>Aguerre</i>	1249	Guillem d'Aguerre	Bardoze	Lapurdi	Enquête	Orpustan 1997
<i>Aguerre</i>	1249	Bernard d'Aguerre		Iparraldea	Enquête	Orpustan 1997
<i>Aguerre</i>	1284	Aguerre	Garabizkai	Nafarroa	Orreaga	TAV § 2.1.8
<i>Aguerre</i>	xiv-xv	Ancho Erantz d'Aguerre		Iparraldea	Col.Dipl. Doc. Gasc.	Ciervide & Santano 1989
<i>Aguerre</i>	xiv-xv	Per Arnaut d'Aguerre		Iparraldea	Col.Dipl. Doc. Gasc.	Ciervide & Santano 1989
<i>Aguerre</i>	xiv-xv	Per Arnaut seynnor d'Aguerre		Iparraldea	Col.Dipl. Doc. Gasc.	Ciervide & Santano 1989
<i>Aguerre</i>	xiv-xv	Errantz d'Aguerre		Iparraldea	Col.Dipl. Doc. Gasc.	Ciervide & Santano 1989
<i>Aguerre</i>	xiv-xv	Johan bort d'Aguerre		Iparraldea	Col.Dipl. Doc. Gasc.	Ciervide & Santano 1989
<i>Aguerre</i>	xiv-xv	Per Arnaut, seynnor d'Aguerre		Iparraldea	Col.Dipl. Doc. Gasc.	Ciervide & Santano 1989
<i>Aguerre</i>	xiv-xv	Pes d'Aguerre		Iparraldea	Col.Dipl. Doc. Gasc.	Ciervide & Santano 1989
<i>Aguerrea</i>	1249	Arnalt d'Aguerrea	Arberoa	Lapurdi	Enquête	Orpustan 1997
<i>Aguerrea</i>	1249	Guillem d'Aguerrea	Bardoze	Lapurdi	Enquête	Orpustan 1997
<i>Aguirre</i>	1391	Iohan d'Aguirre		Gipuzkoa	Zizurkil-Alegia	Mora Afán 2005
<i>Aguirre</i>	1433	Borcha d'Aguirre	Erriberri	Nafarroa	NAO.KtSk	Fdz. de Larrea
<i>Aguirre</i>	1434	Borcha d'Aguirre	Erriberri	Nafarroa	NAO.KtSk	Fdz. de Larrea
<i>Aguirre</i>	d.g.	don Miguel Lopiz de Aguirre	Iza	Nafarroa	Irantzu	Jimeno Julio 1973
<i>Aguirre</i>	d.g.	Jenego de Aguirre		Nafarroa	Irantzu	Jimeno Julio 1973
<i>Aguirreseme</i>	1433	Pedro Ochoa Aguirreseme	Iruñea	Nafarroa	NAO.KtSk2	Fdz. de Larrea
<i>Ahabaunçaa</i>	1066	Ahabaunçaa		Nafarroa	Leire	Ciervide 1976
<i>Ahacxe</i>	xiv-xv	Per Arnaut d'Ahacxe		Iparraldea	Col.Dipl. Doc. Gasc.	Ciervide & Santano 1989
<i>Ahardia</i>	945-956	Belasco Ahardia	Villabáscones	Burgos	Cardena	TAV § 2.1.3
<i>Aheça</i>	xiv-xv	soutzbailhe de la mande d'Aheça		Iparraldea	Col.Dipl. Doc. Gasc.	Ciervide & Santano 1989
<i>Ahoçtarreç</i>	1013	senior Lupe Ahoçtarreç	Elorrio	Bizkaia	Exebarria	TAV § 2.1.6
<i>Aialha</i>	1025	Aialha II rgs.	Donemiliaga	Araba	CSM 91	TAV § 2.1.5
<i>Aiçburua</i>	1249	Aiçburua	Barañain	Nafarroa	SJuan	Lacarra 1957
<i>Aiçurtucua</i>	d.g.	loco quem dicunt Aiçurtucua	Partunia	Nafarroa	Iraxe	Lacarra 1957
<i>Aiegui</i>	1206	mulierem filiam de Anaie de Aiegui	Iraxe	Nafarroa	Iraxe	Mitxelena 1969
<i>Aiudi vide</i>	1300	carrera de Aiudi vide	Artazu	Nafarroa	SJuan	Lacarra 1957
<i>Ainarte</i>	1025	super lascuren de alia parte inferiorem vel ainarte de Areiznabar	Lezo	Gipuzkoa	Olazabal	Cortázar <i>et alii</i> 1979
<i>Ainazchar</i>	1102	Ainazchar		Nafarroa	Leire	Lacarra 1957
<i>Ainnazcar</i>	1095	Ainnazcar	Oreizta	Nafarroa	Leire	Lacarra 1957
<i>Ainnoervec</i>	xiii	Sanso Ainnoervec	Olatz	Nafarroa	SJuan	TAV § 2.1.7
<i>Aipurçi</i>	1064	in foce de aipurçi		Nafarroa	Leire	Ciervide 1976
<i>Aita</i>	1057	Aita Enneco	Leire	Nafarroa	Leire	Ciervide 1996
<i>Aita</i>	981	Aita Bellito	Leire	Nafarroa	Leire	Ciervide 1996
<i>Aita</i>	d.g.	Aita Lionarriz	Leire	Nafarroa	Leire	Ciervide 1996
<i>Aivar</i>	1165	Anaia d'Aivar		Nafarroa	SJuan	Mitxelena 1969b
<i>Aizburu</i>	xiii	Dota Lopeiz Aizburu	mendialdea	Nafarroa	SJuan	TAV § 2.1.7
<i>Aizketa</i>	1114-1115	Aizketa quod est in iuargoiti prope siue iuxta uillam quod dicitur Lecaune		Nafarroa	Leire	Ciervide 1976
<i>Aizubeleiz</i>	1037	Aizubeleiz Fortunio	Leire	Nafarroa	Leire	Ciervide 1996
<i>Aizo</i>	1098	Aizo	Leire	Nafarroa	Leire	Ciervide 1996
<i>Aizoain</i>	1448	vecino de Aizoain	Iruñea	Nafarroa	NAO.KtSk2	Fdz. de Larrea
<i>Aizpe</i>	1109	Aizpe		Nafarroa	Leire	Ciervide 1976
<i>Aizpudi</i>	1032	monasterio de Aizpudi		Nafarroa	Leire	Ciervide 1976

Lekukotasuna	Urtea	Osorik	Herria	Herrialdea	Iturria	Bibliografia
<i>Aizpurgi</i>	1057	Sancio Acenariz de Aizpurgi		Nafarroa	Leire	Ciervide 1976
<i>Aizpuru</i>	1104	Aizpuru		Nafarroa	Leire	Ciervide 1976
<i>Aizpuru</i>	1437	Juan de Aizpuru	Iruñea	Nafarroa	NAO.KtSk2	Fdz. de Larrea
<i>Aizquivel</i>	1218	Aizquivel	Deikaztelu	Nafarroa	Iratxe	Lacarra 1957
<i>Aker Çaltua</i>	1074	que dicitur a rrusticis Aker Çaltua		Nafarroa	San Migel	TAV § 2.2.7
<i>Alaon</i>	1120	Alaon		Nafarroa	Leire	Ciervide 1976
<i>Alaua</i>	1200	Alaua filia Goto	Iratxe	Nafarroa	Iratxe	Mitxelena 1969a
<i>Albistur</i>	1437	Peru de Albistur	Iruñea	Nafarroa	NAO.KtSk2	Fdz. de Larrea
<i>Alcat</i>	1358	Johan Alcat es heredero Pero Alcat	Piedramillera	Nafarroa	Irantzu	Jimeno Jurio 1973
<i>Alcate</i>	1229	Semero alcate de Magneru		Nafarroa	SJuan	Mitxelena 1969b
<i>Alcate</i>	1246	Lop Alcate	Lizarra	Nafarroa	Iratxe	Lacarra 1957
<i>Alcate</i>	xI-xII	Garcia Alcate	Artaxoa	Nafarroa	Artaxoa	Lacarra 1957
<i>Alcate</i>	xI-xII	Orti Ortiz Alcate	Artaxoa	Nafarroa	Artaxoa	Lacarra 1957
<i>Alçate</i>	1395	Johanico d'Alçate	Iruñea	Nafarroa	NAO.KtSk2	Fdz. de Larrea
<i>Alçatea</i>	1328	Alçatea	Iruñea	Nafarroa	NAO.KtSk	Fdz. de Larrea
<i>Alçuburu</i>	1249	les frères Bernart et Lop Bernart d'Alçuburu		Iparraldea	Enquête	Orpustan 1997
<i>Alcuete</i>	xIV-xV	Domejon d'Alcuete		Iparraldea	Col.Dipl. Doc. Gasc.	Ciervide & Santano 1989
<i>Alcuete</i>	xIV-xV	Domejon d'Alcuete		Iparraldea	Col.Dipl. Doc. Gasc.	Ciervide & Santano 1989
<i>Aldaba</i>	1102	Aldaba		Nafarroa	Leire	Ciervide 1976
<i>Aldabea</i>	1485	Aldabea		Nafarroa	Leire	Ciervide 1976
<i>Aldaca</i>	xIII	aldaca		Nafarroa	NFO	TAV § 2.2.13
<i>Aldaico</i>	xI-xII	Aldaico	Artaxoa	Nafarroa	Artaxoa	Lacarra 1957
<i>Aldamara</i>	xII-xIII	Aldamara	Uxue	Nafarroa	Leire	Ciervide 1976
<i>Aldana</i>	xIV-xV	Garcia Lopez d'Aldana		Iparraldea	Col.Dipl. Doc. Gasc.	Ciervide & Santano 1989
<i>Aldaua</i>	1112	Lope Acenariz de Aldaua		Nafarroa	Leire	Ciervide 1976
<i>Aldaua</i>	1353	Martin Periz d'Aldaua		Nafarroa	NAO.KtSk	Fdz. de Larrea
<i>Aldauea</i>	1321	Aldauea	Lizarra	Nafarroa	Iratxe	Lacarra 1957
<i>Aldauea</i>	xII-xIII	Aldauea de Azandieta	Uxue	Nafarroa	Leire	Ciervide 1976
<i>Aldauea</i>	xII-xIII	Aldauea Furtumbera	Uxue	Nafarroa	Leire	Ciervide 1976
<i>Aldave</i>	1249	Aner d'Aldave		Iparraldea	Enquête	Orpustan 1997
<i>Aldaz</i>	1389	Martin Miguel, dicho Balçan, bezino e morador en la billa de Aldaz de la tierra de Larraun	Zizurkil	Gipuzkoa	ZUA	Mora Afán 2005
<i>Aldea</i>	1064	illam casam de Aldea		Nafarroa	Leire	Ciervide 1976
<i>Aldea</i>	1079	quadam villa que apellatur Aldea		Nafarroa	Leire	Lacarra 1957
<i>Aldea</i>	1079	villa que vulgariter dicitur Aldea		Nafarroa	Leire	Lacarra 1957
<i>Aldea</i>	1102	illam casam de Aldea		Nafarroa	Leire	Ciervide 1976
<i>Aldeco</i>	xIII	Dona Maria aldeco	mendialdea	Nafarroa	SJuan	TAV § 2.1.7
<i>Aldeco</i>	xIII	Urracha Donamaria aldeco		Nafarroa	SJuan	Mitxelena 1969b
<i>Aldeico</i>	1111	vinea sua que dicitur de Aldeico	Iratxe	Nafarroa	Iratxe	Mitxelena 1969a
<i>Aldissan</i>	d.g.	Otra bustaliza que'll dizen Aldissan	Etxarri	Nafarroa	Irantzu	Jimeno Jurio 1973
<i>Aldunate</i>	1099	Aldunate		Nafarroa	Leire	Ciervide 1976
<i>Aldunet</i>	1101	Aldunet		Nafarroa	Leire	Ciervide 1976
<i>Aldunet</i>	1102	Aldunet		Nafarroa	Leire	Ciervide 1976
<i>Allavato</i>	1080	coniuge mea Allavato Ortiz	Iratxe	Nafarroa	Iratxe	Mitxelena 1969a
<i>Allavato</i>	1080	et ego prefata Allavato Ortiz	Iratxe	Nafarroa	Iratxe	Mitxelena 1969a
<i>Aloa</i>	1106	Aloa		Nafarroa	Leire	Ciervide 1976
<i>Aloça</i>	d.g.	Aloça	Aralar	Nafarroa	Irantzu	Jimeno Jurio 1973
<i>Alsuetu</i>	1249	Sanz seigneur d'Alsuetu	Garazi	Nafarroa	Enquête	Orpustan 1997

Lekukotasuna	Urtea	Osorik	Herria	Herrialdea	Iturria	Bibliografia
<i>Alsueteta</i>	1249	cabane d'Alsueteta	Garazi	Nafarroa Beherea	Enquête	Orpustan 1997
<i>Alsuetete</i>	1249	Garcia d'Alsuetete	Hazparne	Lapurdi	Enquête	Orpustan 1997
<i>Altunat</i>	1099	Altunat		Nafarroa	Leire	Ciervide 1976
<i>Altunate</i>	1093	Altunate		Nafarroa	Leire	Ciervide 1976
<i>Alzate</i>	1448	Miguel Ibañez, llamado Alzate	Iruñea	Nafarroa	NAO.KtSk2	Fdz. de Larrea
<i>Alzurren</i>	1119-1126	terrumal in Alzurren		Iparraldea	Sorde	Raymond 1873
<i>Ama</i>	1174	Eneco filio de Ama Semena	Fitero	Nafarroa	Col. Doc.In.	Mitxelena 1969a
<i>Ama</i>	1174	Sancia filia de Ama semena	Fitero	Nafarroa	Col. Doc.In.	Mitxelena 1969a
<i>Ama jaureguiaga</i>	1110	Ama jaureguiaga		Nafarroa	Leire	Ciervide 1976
<i>Amarotz</i>	xiv-xv	Bertran d'Amarotz		Iparraldea	Col.Dipl. Doc. Gasc.	Ciervide & Santano 1989
<i>Amarra</i>	1366	Miguel Periz amarra	Peralta	Nafarroa	NAO	Irigarai 1955
<i>Amarri</i>	1366	Miquel amarri	Iruñea	Nafarroa	NAO	Irigarai 1955
<i>Amburça</i>	1218	Amburça	Deikaztelu	Nafarroa	Iratxe	Lacarra 1957
<i>Amburçe</i>	d.g.	Don Galcia de Amburçe	Getze	Nafarroa	Irantzu	Jimeno Jurio 1973
<i>Amescoa</i>	1364	Ferrando d'Amescoa	Etzarri-Aranatz	Nafarroa	NAO.KtSk	Fdz. de Larrea
<i>Amex</i>	1366	Gaiz amex	Etzarri-Arantz	Nafarroa	NAO	Irigarai 1955
<i>Amorexea</i>	1366	amorexea	Lantz	Nafarroa	NAO	Irigarai 1955
<i>Amuna</i>	1097	Amuna Sanz, germana mea	Leire	Nafarroa	Leire	Ciervide 1996
<i>Amunna</i>	1237	Gomiç de Amunna	Leire	Nafarroa	Leire	Ciervide 1996
<i>Amusco</i>	1109	Amuscoiz Albaro	Leire	Nafarroa	Leire	Ciervide 1996
<i>Amusco</i>	1123	Amusco	Leire	Nafarroa	Leire	Ciervide 1996
<i>Anaia</i>	1141	tibi Anaia de Sada	Iratxe	Nafarroa	Iratxe	Mitxelena 1969a
<i>Anaia</i>	1141	ego Anaia	Iratxe	Nafarroa	Iratxe	Mitxelena 1969a
<i>Anaia</i>	1165	Anaia d'Aivar		Nafarroa	SJuan	Mitxelena 1969b
<i>Anaia</i>	1222	de una parte anaia	Iratxe	Nafarroa	Iratxe	Mitxelena 1969a
<i>Anaia</i>	xi-xii	Anaia	Artaxoa	Nafarroa	Artaxoa	Lacarra 1957
<i>Anaie</i>	1206	mulierem filiam de Anaie de Aiegui	Iratxe	Nafarroa	Iratxe	Mitxelena 1969a
<i>Anaie</i>	1209	filius de Anaye	Iratxe	Nafarroa	Iratxe	Mitxelena 1969a
<i>Anaie</i>	1229	Jaun de Anaie	Leire	Nafarroa	Leire	Ciervide 1996
<i>Anaie</i>	1229	Orti filius Jaun de Anaie	Olendain	Nafarroa	SJuan	Mitxelena 1969b
<i>Anaie Alcat</i>	xi-xii	Anaie Alcat	Artaxoa	Nafarroa	Artaxoa	Lacarra 1957
<i>Anay</i>	1212	Anay vielo		Nafarroa	Iratxe	Mitxelena 1969a
<i>Anaya</i>	1261	Don Domingo Anaya	Tutera	Nafarroa	SJuan	Mitxelena 1969b
<i>Anaya</i>	1366	Iohan fijo de pero anaya	Larraga	Nafarroa	NAO	Irigarai 1955
<i>Anaye</i>	1212	Garsia filius de Anaye	Iratxe	Nafarroa	Iratxe	Mitxelena 1969a
<i>Ançare soroa</i>	1396	pieça clamada Ançare soroa	Lizarra	Nafarroa	Iratxe	Lacarra 1957
<i>Ançartegui</i>	d.g.	Ançartegui	Partunia	Nafarroa	Iratxe	Lacarra 1957
<i>Ancho</i>	xiv-xv	Ancho de Gelos		Iparraldea	Col.Dipl. Doc. Gasc.	Ciervide & Santano 1989
<i>Ancho</i>	xiv-xv	Ancho Oppuca		Iparraldea	Col.Dipl. Doc. Gasc.	Ciervide & Santano 1989
<i>Ançin</i>	1358	qui mora en Ançin	Piedramillera	Nafarroa	Irantzu	Jimeno Jurio 1973
<i>Ançoriçe</i>	1046	Ançoriçe		Nafarroa	Leire	Ciervide 1976
<i>Andaçarramendia</i>	1389	et otro moion o muga que esta en el çerro de Andaçarramendia	Zizurkil	Gipuzkoa	ZUA	Mora Afán 2005
<i>Andaçça</i>	1389	en ca parte de Andaçça	Zizurkil	Gipuzkoa	ZUA	Mora Afán 2005
<i>Andaçça</i>	1389	en el monte de Andaçça	Zizurkil	Gipuzkoa	ZUA	Mora Afán 2005
<i>Andaççasoraa</i>	1389	muga que esta en el logar clamado Andaççasoraa	Zizurkil	Gipuzkoa	ZUA	Mora Afán 2005
<i>Anderazo</i>	1035	Ego Anderazo de Fortes	Valbanera	Nafarroa	Iratxe	Mitxelena 1969a
<i>Andere</i>	1055	Andere Auria Zaarra	Leire	Nafarroa	Leire	Ciervide 1996
<i>Andere</i>	1085	Andere Auria Acenariz	Leire	Nafarroa	Leire	Ciervide 1996

Lekukotasuna	Urtea	Osorik	Herria	Herrialdea	Iturria	Bibliografia
<i>Andere</i>	xI-xII	Garcia don Andere	Artaxoa	Nafarroa	Artaxoa	Lacarra 1957
<i>Andere</i>	xI-xII	andere Semera seror episcopi	Artaxoa	Nafarroa	Artaxoa	Lacarra 1957
<i>Andere Landerra</i>	1164	et cum uxore sua andere Landerra		Nafarroa	Iratxe	Lacarra 1957
<i>Anderea</i>	xI-xII	Anderea Oneca de Aoiz	Arriasoiti	Nafarroa	SJuan	Mitxelena 1969b
<i>Andereçu</i>	1211	Andereçu Heresaiz		Nafarroa	Col. Doc.In.	Mitxelena 1969a
<i>Andereçu</i>	xIII	Andereçu	Allotz	Nafarroa	SJuan	TAV § 2.1.7
<i>Anderetaco</i>	xI-xII	Lope Anderetaco	Artaxoa	Nafarroa	Artaxoa	Lacarra 1957
<i>Anderete</i>	d.g.	Anderete	Olxoa	Nafarroa	Irantzu	Jimeno Jurio 1973
<i>Anderezu</i>	d.g.	Anderezu Xemenones	Leire	Nafarroa	Leire	Ciervide 1996
<i>Andi</i>	1449	Anso Andi	Iruñea	Nafarroa	NAO.KtSk2	Fdz. de Larrea
<i>Andia</i>	1203	Domicu Andia	Iratxe	Nafarroa	Iratxe	Mitxelena 1969a
<i>Andia</i>	1262	que se tenet iuxta vineam Simonis Andia	Tutera	Nafarroa	SJuan	Mitxelena 1969b
<i>Andia</i>	1290	Sancho Perić Andia	Mañeru	Nafarroa	SJuan	Mitxelena 1969b
<i>Andia</i>	1391	Pero d'Andia		Gipuzkoa	Zizurkil-Alegia	Mora Afán 2005
<i>Andia</i>	1391	Beltran andia		Gipuzkoa	Zizurkil-Alegia	Mora Afán 2005
<i>Andia</i>	1434	Chachu andia	Iruñea	Nafarroa	NAO.KtSk2	Fdz. de Larrea
<i>Andia</i>	1448	Sancho Sanz de Areso, llamado Andia	Iruñea	Nafarroa	NAO.KtSk2	Fdz. de Larrea
<i>Andia</i>	d.g.	Lope Andia	Arakil	Nafarroa	Irantzu	Jimeno Jurio 1973
<i>Andia</i>	d.g.	Peydro Sendoa et Lope Andia	Allin	Nafarroa	Irantzu	Jimeno Jurio 1973
<i>Andia</i>	d.g.	La bustaliza de Andia		Nafarroa	Irantzu	Jimeno Jurio 1973
<i>Andia</i>	d.g.	buyes de Andia	Abartzuza	Nafarroa	Irantzu	Jimeno Jurio 1973
<i>Andia</i>	d.g.	es fiador Sancho Urdea de I buey de Andia	Abartzuza	Nafarroa	Irantzu	Jimeno Jurio 1973
<i>Andia</i>	xIII	Eneco Andia	Allotz	Nafarroa	SJuan	TAV § 2.1.7
<i>Andia</i>	xI-xII	Sanso Andia	Artaxoa	Nafarroa	Artaxoa	Lacarra 1957
<i>Andiaçaval</i>	1391	Pero d'Andiaçaval		Gipuzkoa	Zizurkil-Alegia	Mora Afán 2005
<i>Andiggana</i>	1025	Andiggana et Oronda	Donemiliaga	Araba	CSM 91	TAV § 2.1.5
<i>Andoain</i>	1435	Juan Martinez de Andoain	Iruñea	Nafarroa	NAO.KtSk2	Fdz. de Larrea
<i>Andozketa</i>	1025	Andozketa I rg.	Donemiliaga	Araba	CSM 91	TAV § 2.1.5
<i>Andre</i>	1111	Andre Sancia Lopiz	Leire	Nafarroa	Leire	Ciervide 1996
<i>Andre</i>	1174	Andre Oneca	Arizala	Nafarroa	Col. Doc.In.	Mitxelena 1969a
<i>Andre</i>	1190	inter andre Auria	Barbatin	Nafarroa	SJuan	Mitxelena 1969b
<i>Andre</i>	1190	et inter andre Semera	Barbatin	Nafarroa	SJuan	Mitxelena 1969b
<i>Andre</i>	1190	in Barrenessea, andre Zuria	Barbatin	Nafarroa	SJuan	Mitxelena 1969b
<i>Andre</i>	1196	andre Apala de Pamplona		Nafarroa	SJuan	Mitxelena 1969b
<i>Andre</i>	xI-xII	andre Lope de Agressa	Artaxoa	Nafarroa	Artaxoa	Lacarra 1957
<i>Andrebata</i>	d.g.	Andrebata	Leire	Nafarroa	Leire	Ciervide 1996
<i>Andreçuria</i>	1247	Semero de Andreçuria		Nafarroa	SJuan	Mitxelena 1969b
<i>Andredota</i>	xIII	Andredota Enecoiz	Olatz	Nafarroa	SJuan	TAV § 2.1.7
<i>Andree</i>	1209	nomine Andree Oneca	Iratxe	Nafarroa	Iratxe	Mitxelena 1969a
<i>Andregaila</i>	1366	Andregaila	Iruñea	Nafarroa	NAO	Irigarai 1955
<i>Andregoto</i>	1156	filia Andregoto	Artaxoa	Nafarroa	Artaxoa	Mitxelena 1969b
<i>Andregoto</i>	d.g.	Andregoto	Leire	Nafarroa	Leire	Ciervide 1996
<i>Andregoto</i>	d.g.	dona Andregoto	Gesalatz	Nafarroa	Irantzu	Jimeno Jurio 1973
<i>Andregoto</i>	d.g.	paga de los noçedos de Andregoto	Getze	Nafarroa	Irantzu	Jimeno Jurio 1973
<i>Andreo Gorria</i>	1294	don Andreo Gorria	Eriberri	Nafarroa	SJuan	Mitxelena 1969b
<i>Andrequina</i>	1289	Donna Andrequina Furtado		Nafarroa	SJuan	Mitxelena 1969b
<i>Andretota</i>	d.g.	Andretota	Leire	Nafarroa	Leire	Ciervide 1996
<i>Androneca</i>	1174	Androneca	Arizala	Nafarroa	Col. Doc.In.	Mitxelena 1969
<i>Andurra</i>	1257	el nostro mont de Andurra	Leatxe	Nafarroa	Iratxe	Mitxelena 1969a

Lekukotasuna	Urtea	Osorik	Herria	Herrialdea	Iturria	Bibliografia
<i>Andurra</i>	1446	Nardues Andurra		Nafarroa	Iratxe	Mitxelena 1969a
<i>Andurra</i>	1446	Sansoain Andurra		Nafarroa	Iratxe	Mitxelena 1969a
<i>Anerart</i>	1249	Peirona d'Anerart		Iparraldea	Enquête	Orpustan 1997
<i>Anfiz</i>	1135-1136	Lupus de Anfiz		Iparraldea	Sorde	Raymond 1873
<i>Angellu</i>	1025	Urbina et Angellu	Donemiliaga	Araba	CSM 91	TAV § 2.1.5
<i>Aniztarra</i>	1229	Sancho Aniztarra		Nafarroa	SJuan	Mitxelena 1969b
<i>Annaia</i>	d.g.	Garcia Forti de Nabascosce et Annaia et...		Aragoi	SJu.Pe.Kart.	Mitxelena 1969b
<i>Anso</i>	1226	iaun Domicu filius iaun Anso Miqueleiz	Uterga	Nafarroa	SJuan	Lacarra 1957
<i>Anso</i>	xiv-xv	Anso d'Echevelce		Iparraldea	Col.Dipl. Doc. Gasc.	Ciervide & Santano 1989
<i>Anso Iturrico</i>	1246	el logar que dizen Anso Iturrico	Lizarra	Nafarroa	Iratxe	Lacarra 1957
<i>Ansorena</i>	1247	Guarcea Ansorena	Arlegi	Nafarroa	SJuan	Mitxelena 1969b
<i>Aoçavalla</i>	1173	Berasco aoçavala	Artaxoa	Nafarroa	Artaxoa	Lacarra 1957 Mitxelena 1969b
<i>Aoiz</i>	xiv-xv	Martin d'Aoiz		Iparraldea	Col.Dipl. Doc. Gasc.	Ciervide & Santano 1989
<i>Aoss yriberri</i>	1124	peza de Aoss yriberri		Nafarroa	Leire	Ciervide 1976
<i>Apala</i>	1196	andre Apala de Pamplona de andre semera		Nafarroa	SJuan	Mitxelena 1969b
<i>Apala</i>	1300	don Domingo de Apala	Tutera	Nafarroa	SJuan	Mitxelena 1969b
<i>Apaleçeague</i>	xiv-xv	Arnaut d'Apaleçeague		Iparraldea	Col.Dipl. Doc. Gasc.	Ciervide & Santano 1989
<i>Apallo</i>	1366	Anso Apallo	Doneztebe	Nafarroa	NAO	Irigarai 1955
<i>Apalo</i>	1173	Apalo	Artaxoa	Nafarroa	Artaxoa	Mitxelena 1969b
<i>Aparrayn</i>	xiv-xv	Chanet d'Aparrayn		Iparraldea	Col.Dipl. Doc. Gasc.	Ciervide & Santano 1989
<i>Apathea</i>	1257	freyre Pedro de Çuaçti comendador de Apathea		Nafarroa	SJuan	Mitxelena 1969b
<i>Apeça</i>	1366	Miguel apeça	Irañeta	Nafarroa	NAO	Irigarai 1955
<i>Apezgayz</i>	1366	Pero periz apezgayz	Lizarra	Nafarroa	NAO	Irigarai 1955
<i>Apezteguico</i>	1216	don Garcia Apezteguico		Nafarroa	SJuan	Mitxelena 1969b
<i>Apharrayn garay</i>	xiv-xv	Per Arnaut d'Apharrayn garay		Iparraldea	Col.Dipl. Doc. Gasc.	Ciervide & Santano 1989
<i>Aquetza</i>	1173	Garindo Aquetza	Artaxoa	Nafarroa	Artaxoa	Lacarra 1957
<i>Aquicheta</i>	1110	Aquicheta		Nafarroa	Leire	Ciervide 1976
<i>Arachilar</i>	1225	Lope Arachilar de Oteïça	Iratxe	Nafarroa	Iratxe	Mitxelena 1969a
<i>Araçuri</i>	d.g.	En Araçuri	Zizur	Nafarroa	Irantzu	Jimeno Jurio 1973
<i>Araiz</i>	1437	Juan de Araiz	Iruñea	Nafarroa	NAO.KtSk2	Fdz. de Larrea
<i>Aralar</i>	d.g.	en Aralar suso		Nafarroa	Irantzu	Jimeno Jurio 1973
<i>Aralar</i>	d.g.	como uan a Ualcisqueta Aralar		Nafarroa	Irantzu	Jimeno Jurio 1973
<i>Araldeco</i>	xiii	Lope Araldeco	mendialdea	Nafarroa	SJuan	TAV § 2.1.7
<i>Araldeco</i>	xiii	Lope Araldeco	mendialdea	Nafarroa	SJuan	TAV § 2.1.7
<i>Aramate</i>	1213	Lope Aramate	Mañeru	Nafarroa	SJuan	Lacarra 1957
<i>Aramburu</i>	xiv-xv	Johan Alfonso d'Aramburu		Iparraldea	Col.Dipl. Doc. Gasc.	Ciervide & Santano 1989
<i>Aramburu</i>	xiv-xv	Arnau d'Aramburu		Iparraldea	Col.Dipl. Doc. Gasc.	Ciervide & Santano 1989
<i>Aramburu</i>	xiv-xv	Per Arnaut d'Aramburu		Iparraldea	Col.Dipl. Doc. Gasc.	Ciervide & Santano 1989
<i>Aramendia</i>	1209	Pascual de Aramendia	Iratxe	Nafarroa	Iratxe	Mitxelena 1969a
<i>Aran Mendico</i>	1200	Lope Aran Mendico	Iratxe	Nafarroa	Iratxe	Mitxelena 1969a
<i>Aran vide chipia</i>	1249	Aran vide chipia	Barañain	Nafarroa	SJuan	Lacarra 1957
<i>Aran vide nagusia</i>	1249	Aran vide nagusia	Barañain	Nafarroa	SJuan	Lacarra 1957
<i>Arana</i>	1258	Arana	Lizarra	Nafarroa	Iratxe	Lacarra 1957
<i>Arana</i>	d.g.	En Arana, en Leçeeta	Ameskoa	Nafarroa	Irantzu	Jimeno Jurio 1973
<i>Arana</i>	d.g.	La pieça de done Sancho Arana		Nafarroa	Irantzu	Jimeno Jurio 1973
<i>Aranam</i>	1138	cum casis de Albaro Zumate et aranam		Araba	Estibaliz	Cortázar <i>et alii</i> 1979
<i>Aranaz</i>	1436	Miguelex de Aranaz	Iruñea	Nafarroa	NAO.KtSk2	Fdz. de Larrea

Lekukotasuna	Urtea	Osorik	Herria	Herrialdea	Iturria	Bibliografia
<i>Aranbelz</i>	1268	Aranbelz		Nafarroa	NAO	Ciervide 1976
<i>Arançurieta</i>	1258	Arançurieta	Lizarra	Nafarroa	Iratxe	Lacarra 1957
<i>Arandicoa</i>	1226	E. Arandicoa	Uterga	Nafarroa	SJuan	Lacarra 1957
<i>Arandigoien</i>	1098	en la parte alta de Arandigoien		Nafarroa	Leire	Ciervide 1976
<i>Arandigoyen</i>	d.g.	es en termino de Arandigoyen	Lizarra	Nafarroa	Irantzu	Jimeno Jurio 1973
<i>Aranea</i>	1060	Aranea	Esa	Nafarroa	Leire	Ciervide 1976
<i>Aranequo</i>	1435	Maria Ibañez de Beruet, llamada Aranequo	Iruñea	Nafarroa	NAO.KtSk2	Fdz. de Larrea
<i>Araneta</i>	1391	Iohan de Araneta		Gipuzkoa	Zizurkil-Alegia	Mora Afán 2005
<i>Araneta</i>	1391	Don Pedro de Araneta		Gipuzkoa	Zizurkil-Alegia	Mora Afán 2005
<i>Aranguiuela</i>	d.g.	en Aranguiuela	Etxarri	Nafarroa	Irantzu	Jimeno Jurio 1973
<i>Aranguren</i>	1268	Aranguren		Nafarroa	NAO	Ciervide 1976
<i>Araniana</i>	1152	Bernard de Araniana		Nafarroa	NAO	Ciervide 1976
<i>Aranque</i>	1119-1126	Endregot de Aranque		Iparraldea	Sorde	Raymond 1873
<i>Aranseta</i>	1249	Daunet d'Aranseta		Iparraldea	Enquête	Orpustan 1997
<i>Aranso</i>	1353	Arnaut d'Aranso		Nafarroa	NAO.KtSk	Fdz. de Larrea
<i>Aranssus</i>	1353	Monaut d'Aranssus		Nafarroa	NAO.KtSk	Fdz. de Larrea
<i>Aranuide chipia</i>	1249	in Aranuide chipia	Barañain	Nafarroa	SJuan	Mitxelena 1969a
<i>Aranuide</i>	1249	in Aranuide nagusia	Barañain	Nafarroa	SJuan	Mitxelena 1969
<i>Araueco</i>	1210	Semero Araueco	Iratxe	Nafarroa	Iratxe	Mitxelena 1969a
<i>Aravarra</i>	1190	Orti Aravarra	Barbatain	Nafarroa	SJuan	TAV § 2.1.7 Mitxelena 1969b
<i>Araynaz</i>	d.g.	En Araynaz, en Echarri	Burunda	Nafarroa	Irantzu	Jimeno Jurio 1973
<i>Arazuri</i>	1186	don ochoquo de Arazuri		Nafarroa	SJuan	Mitxelena 1969b
<i>Arbe</i>	1032	Arriegu de Arbe		Nafarroa	Leire	Ciervide 1976
<i>Arbe</i>	1115	Sanz fortuniones de Arbe		Nafarroa	Leire	Ciervide 1976
<i>Arbea</i>	1104	in loco qui dicitur Arbea, id est petra super petram		Nafarroa	Leire	TAV § 2.2.9
<i>Arbea</i>	1115	Arbea id est petra supra petra		Nafarroa	Leire	Ciervide 1976
